

Marta Rodríguez Pascual

A maila • 3 saria

Marta Rodríguez naiz, 17 urteko neska Beasaindarra. Txindoki institutuan nabil, nahiz eta hau nire azken urtea den. Txikitatik izan dut irakurtzea gustuko, eta denbora aurrera pasa ahala irakurtzeko grina hau idazteko nahia bihurtu zen.

Harrigarria iruditu zait beti beste norbaitek sortzen dituen pertsonaiak, tokiak edota istorioak guregan eduki dezaketen eragina eta nola pertsonaia horiekin identifikatuta sentitu gaitezkeen. Sentimenduei forma ematea ez da erraza, eta bakoitzak bere barnean sentitzen duena hitzekin ulertaraztea da idaztearen magia.

Idazteak eta irakurtzeak errealitatea ulertzen laguntzen digute eta gure pentsamenduei forma ematen diete. Ondoren irakurriko duzuen kontakizunean bi pertsonen arteko istorioa agertzen da. Hemen maitasuna edozein forman ulertu eta onartu behar dela aldarrikatzen saiatu naiz.



EURI-TANTEN AZPIAN

Neguko egun euritsu bat zen. Urteroko lege, aitona Xabierrek azokara eraman ninduen nire zazpigarren urtebetetzeko oparia aukeratzera. Nahiz eta gerra duela sei hilabete bukatu, oraindik kaleak jendez beteta zeuden, Alemaniaren eta nazien porrota ospatzen.

Egun hartan ikusi nuen lehenengo aldiz. Ile marroi motza zuen, ur tantek belzten zutena. Segundo batzuk igaro nituen soilik hari begira, eta gure begiradak ez ziren gurutzatu, baina egun hartako bere irudia oraindik gogoan dut. Jolasean, euriari jaramonik egin gabe, bestek bezala, irribarrez eta lortutako askatasunaren eredu.

Bi urte igaro ziren berriro ikusi arte. Ostirala zen eta Bordelera itzuli nintzen barnetegitik. Gure erdiguneko etxera bueltatzerakoan, aita etxeko zerbitzua kontratatu zuela jakinarazi zidan, garbiketaz eta sukaldaritzaz arduratuko zena. Familia hau etxean biziko zela esan zidan; ama, aita eta nire adineko semea. Aita Rousseau familia aurkeztu zidan afalorduan eta orduantxe konturatu nintzen bikotearen umea azokan duela bi urte ikusi nuen ume ahaztezin hura zela.

- Ni Daniel naiz - esan zidan umeak. Nik, lotsatuta, lurrera begira jarraitzen nuen zer esan jakin gabe.

Betidanik ume lotsatia izan nintzen, baina Danielen presentzian, beste gure adineko umeen aurrean ez bezala, kikildu egiten nintzen eta ezin nuen hitzik esan. Gure begiradek topo egiten zuten bakoitzean, burua makurtzen nuen, nire bihotzen taupada azkarrek sumatuz.

Pixkanaka familiaren presentziara ohitu nintzen eta lotsa galtzen joan nintzen. Astebururo eskolatik bueltatzen nintzenean Danielek berarekin jolastera gonbidatzen ninduen. Hasiera batean buruarekin ezetz erantzuten nion. Behin, ordea, baiezkoa ematera ausartu nintzen, eta egun horretan hasi zen maitasunean bilakatuko zen adiskidetasuna. Egun hartan hitz egin nuen lehenengo aldiz bere aurrean. Pare bat ordu jolasean igaro ondoren, agur esan nion ahots altuarekin, bere begi urdinetara begira. Nire hitzek irribarre gozo bat marraztu zuten bere aurpegian.

Gurasoek ez ziguten lagunak izateko trabarik jarri, nahiz eta bion maila sozialen arteko desberdintasuna nabarmena izan. Ostiralero, afalostean ganbaran elkartzen ginen eta gaua jolasten igarotzen genuen, non orduak segundo bihurtzen ziren. Gure tradizio bihurtu ziren arrats horiek. Hilabeteak aurrera zihoazen, eta nik hamalau urte bete nituen, berak hamabost. Denbora pasa ahala, lehen jaramonik egiten ez nien keinu txikitan erreparatzen hasi nintzen. Bere begien distira eguzkiak jotzean. Nola bere irribarreak nire aurpegian keinu berdina marrazten zuen. Nola bere begiradak nire bihotzaren taupadak azkartzen zituen. Nola, pixkanaka, denbora gehiago igarotzen zen begiradak alderatu baino lehen, agur esateko ordua atzeratzen genuen eta nola bion arteko distantzia astero txikiagoa bilakatzen zen.

Danielekiko nituen sentimenduak ezin nituen ulertu. Nire alde tradizionalak eta arrazionalak hori gaizki zegoela esaten zidan. Berak berdina ez sentitzearen beldur nintzen. Bere keinuak, hitzak eta begiradak gaizki ulertu izanaren beldur. Hilabeteak pasa nituen inori nire sentimenduez hitz egin gabe, besteen iritzien beldur, gure adiskidetasuna suntsitzearen beldur.

Oraindik gogoratzen dut gure adiskidetasuna aldatu zuen eguna. Nire hamaseigarren urtebetetzea zen, azaroaren 28a, eta familiarekin ospatu ondoren Danielek hirira joatera proposatu zidan eguna amaitzeko. Etxeko sarreran aurkitu ginenean konturatu nintzen jada ez ginela bederatzi urte zituzten bi haur lotsati eta ezezagun. Ia hamar urte igaro ondoren, Daniel ni baino hamar zentimetro altuagoa zen, eta bizarra sumatzen hasten zen bere bisaia lasaian.

Burdeleko erdigunetik bueltaka ibili ginen, gaua iritsi arte. Danielek toki ezezagun batera eramango ninduela esan zidan, eta hamar minutu ondoren, kale lasai batera iritsi ginen, eta bertan eraikin batera sartu ginen. Azkeneko pisura igo ginen; soilik terraza handi bat zegoen. Ertz batean eseri ginen, hankak zintzilik, gure gorputzak ukitzen, ilargiari begira.

Minutuak igaro genituen isiltasunean murgilduta, eta gure arnasen hotsa bakarrik entzuten zen. Nire sentimenduak aitortzeko unea izan zitekeela pentsatu nuen, baina ez nuen behar adinako kemenik izan.

Gero eta gertuago geunden, bere gorputzaren beroa gero eta nabariagoa egiten zitzaidan. Burua biratu nuen begirada bere begi urdinetan finkatuz. Agian nire irudipena zen, baina bere begietan emozio berdina antzematen zen.

- Noizbait benetan askeak izango garela pentsatzen duzu? - esan zidan bat-batean. Nik, nola erantzun jakin gabe, isilik geratu nintzen. Bere begirada sakonak nirearekin topo egin zuen.
- Nahi dugun bezala bizitzeko, beldurrik gabe pentsatzen duguna esateko edota estatusari, arrazari edota besteen iritziei jaramonik egin gabe nahi duguna maitatzeko?

- Ez dakit, agian ez - erantzun nuen zintzotasunez. - Agian itxaropena soilik ematen digun ametsa da.

- Nik ez dut amets bat izaterik nahi, nik errealitate bilakatu nahi dut - erantzun zuen, gure aurpegiak gero eta gertuago.

Nire ileko kizkur bat hartu zuen, kokotseraino iristen zitzaidana, eta belarriaren atzean jarri zidan, eskua bertan utziz. Nik mugitu gabe jarraitzen nuen, milimetro bat mugitzeko beldur, arnasa ere geldirik.

Bion arteko distantzia ia hutsa zenean bere begiek baimena eskatu zidaten. Nik baietz esan nuen eta ondoren gure ezpainak elkartu egin ziren. Ez nituen su artifizialak edota tximeletak nire sabelean sentitu. Inozentziaz beteriko muxuan, lasaitasuna bakarrik, etxera iritsi nintzen sentsazioa. Bi pertsona besterik ez. Beste guztia, gure sustraiak, lanak, estatus soziala, desberdintasunak ... ez ziren garrantzitsuak, musu horretan maitasuna zegoelako, eta beste guztia, jada, ez zen funtsezkoa.

Lehenengo tanta masailean sentitu nuen. Hurrengo kopetan. Hurrengo lepoan. Banandu egin ginen eta irribarreekin gure aurpegietan euria sentitu genuen azalaren kontra, mugitu gabe. Lehen aldiz azokan ikusi nuenean bezalaxe, duela bederatzi urte, euriaren azpian, honi jaramonik egin gabe.

Orduak igaro genituen teilatu hartan, bustita, muxuen eta elkarriketen artean. Gure ametsak, kezka eta hitzak elkarbanatuz.

Ostiralero institututik hirira bueltatzerakoan ganbaran elkartzen ginen, baina, orain, ez ginen batera jolasten zuten bi lagun soilik, maitaleak ere baginen. Asteburuetan elkarrekin igarotzen genituen momentu libre guztiak. Ez genion inori kontatu, bion arteko sekretu bat bezala mantendu genuen. Afariak ezkutuko begiraden artean igarotzen genituen, eta beti kontu handiarekin ibiltzen ginen inor ez konturatzeko.

Baina, hanka-sartze batek dena hondatu zuen. Oso gutxitan joaten ginen nire logelara, bertan harrapatuak izateko aukera gehiago baitzeuden. Bertan geundela, biok eserita ondoan musuka eta barrezka, ez genituen entzuk eskaileretatik gora zetozen pausoak, ezta atearen soinua ere irekitzerakoan.

- Zer? Zer gertatzen ari da hemen?! - entzun nion nire amari esaten. Azkar banandu ginen Daniel eta biok, harridura eta kezka gure aurpegietan nabari. Baina, jada, berandu zen, amaren nazka beteriko aurpegiari begiratzen nion bitartean, zer esan jakin gabe.

- Ama- hasi nintzen esaten, honek moztu baino lehenago.

- Lucas - esan zidan, etsipena bere hitzetan bistakoa zela - Nola izan zara hau egiteko gai. Beste mutil bat musukatzeko. Hori gaizki dago! - oihukatzen zidan, bere hitz pozoitsuak nire bihotzean iltzatuz. Danielek pauso bat aurrera eman zuen ni defendatzeko, baina ezetz esan nion, malkoek nire ikusmena lausotzen zuten bitartean. - Eta zu... - jarraitu zuen orain amak Danieli begira - nola izan zara gu horrela tratatzeko gai, zure familiari lana eman eta gero. Joan, atera hemendik. - esan zion, eta mugitzen ez zela ikustean garrasi batean ateratzeko esan, eta honek nola jokatu jakin gabe, malkoetan gelatik atera zen. Biok bakarrik geratu ginen, nik oraindik nire begien aurrean gertatutakoa asimilatzen.

- Zenbat denbora? - galdetu zidan amak. - Zenbat denbora egon zarete biok hau ezkutatzen?

- Ez dakit. Hilabete batzuk - erantzun nion.

- Hilabete batzuk?! Lucas, nola besarka dezakezu beste mutil bat? Nola maita dezakezu beste mutil bat? Hori ez da zuzena, bekatua da, biraoa. Zer ideia sartu dizkizu mutil horrek buruan, nola engainatu zaitu mutil horrek zuk jarraitzeko? - galdetzen zidan, eta bere begiradak bere hitzek baino gehiago mintzen ninduten. Ezagutzen ez banindu bezala begiratzen zidan.

- Ez dit ideiarik sartu ama, zoriontsu egiten nau berarekin egoteak, hain zaila da ulertzeko? - esaten nion, bere ulermenaren bila.

- Bai, hori gaixotasun bat delako, Lucas. Ez al duzu ulertzen?

- Gaixotasuna? Homosexualitatea ez da gaixotasun bat ama! Ulertezina da zuretzat pertsonak bezala maitemindu garela? Pertsonak, gizakiak, zu bezala, beste edozein bezala maitemindu gara. Maitasunari ez zaizkio arrazak, estatusa eta mugak axola, eta askoz gutxiago generoak. Pertsona da, nahiz eta aberatsa ez izan, edota mutila izan, nire berdina da, zure berdina da. Eta zuk dituzun eskubide guztiak nire eskubide ere badira, eta nire aukera da bera maitatzea. Homosexualitatea ezin da "sendatu", ez delako gaixotasun bat!

- Ez dakizu zer esaten duzun - erantzuten zidan amak, esaten nuenari jaramonik egin gabe.
- Aitarekin hitz egin beharko dut, eta Daniel eta bere familiarekin zer egingo dugun pentsatu behar dugu. Zuen erruarengatik agian kaleratu egin beharko ditugu.

- Ez - erregutu nion. - Ni joango naiz kanpora ikastera beharrezkoa baldin bada, baina Rousseau familiak urteak igaro ditu hemen lanean, ez du hori merezi.

Ama aitarekin hitz egitera joan zen, eta nire logelatik ez ateratzeko agindua eman zidan. Sekula ez nuen gau hartan baino bakardade gehiago sentitu. Bakarrik. Ez ulertua, ez onartua. Gau guztia igaro nuen negar isilean. Hurrengo egunean komunikatu zidaten beraien erabakia. Danielen gurasoek etxean jarraituko zuten lan egiten, eta ni Parisera bidaliko ninduten unibertsitatara.

Azkar egin behar izan nituen mailetak, eta Danieli agur esateko aukera ez izatearen beldur nintzen. Etxe hartan geratuko nintzen azken gauean terrazan aurkitzeko aukera nuen, eta guztiak lotara joan zirenean bertara joan nintzen. Bertan aurkitu nuen, bizkarra emanaz ilargiari begira. Euria ari zuen, baina hau lasaitasunez erortzen zen, mantso, bustitzeko ia aukerarik eman gabe. Bere ondoan jarri nintzen zeruari begira.

- Gertatutakoaz damutzen zara? - galdetu zidan, oraindik zeruari begira. Ezetz erantzun nion. Inoiz ez. - Nahiz eta zure gurasoen iritzia hain kontrakoa izan? - galdetu zidan berriro.

- Ez, hori beraien arazoa da. - erantzun nion. - Horrelakoa naizela ulertzen ez badute, ez da nire errua. Nire eskubidea da nahi dudana maitatzea. Halere, beraien hitzek asko mintzen naute. Nahikoa izango litzateke beraien begiradak mespretxuz beteta, nazkaz beteta egongo ez balira.

- Hori ez da nahikoa. Gizartearen ulermena nahi duzu, eta nik ere bai. Biok elkar maita dezakegula nahiz eta bi mutil izan ulertzea. Nahikoa ez da inoiz aski izango, azken finean, nor dago emandakoarekin soilik etsitzeko eta konformatzeko prest? - esan zidan, gure begiek elkar topatuz. Euria gero eta indartsuago erortzen zen gure gainean.

- Agian ez gara garai egokian jaio, agian gure garaitik kanpo, honi aurreratuak jaio gara. Agian, beste bizitza batean elkarrekin egoteko aukera izango dugu. Besteen onarpenarekin, beste edozein bikote bezala, gure maitasuna kritikatu, mespretxatua edo debekatua ez denean -

esan nion. - Ezin dugu itxaropena galdu.

- Agian, arrazoi duzu. Beste batzuek guk bizi ezin izan dugun istorioa biziko dute, gure omenez
- erantzun zidan.

Isilik geratu ginen, izarren azpian, hauek gure maitasunaren lekuko. Euriak busti gintuen, tantek gure malkoak disimulatu. Hori izan zen Daniel ikusi nuen azken aldia. Euria gure maitasunaren testigu, beste amaiera tragikoko maitasun istorio baten protagonista, une garrantzitsu guztietan agertuz.

Euriak sentimendu goibela ekartzen digu burura, triste jartzen gaituena ikusten dugunean. Agian bere lainoen grisak edo bere erorketaren ahuleziak zerikusia du. Eta, aldiz, zenbat bizi gordetzen duten hauen tantak. Sekula berdinak ez, beti berrituak.

Euriak abestiak inspiratu ditu, istorioak sortu ditu. Euririk gabe, urik gabe, zuhaitzak hilko lirateke. Eta gero, putzuak, errekek, lakuak eta, azkenik, itsasoak desagertu ere. Eta amaieran, gu geu ere bai.

Baina euria ere beldurgarria izan daiteke. Beldurgarria da garbituko digun edota bakarrik busti egingo gaituen ez dakigunean. Ikara sortzen du neurririk gabe erortzen denean eta dena urpetzen duenean.

Baina, amaieran, hainbeste sinbolismo eta metaforen atzetik, euria soilik fenomeno atmosferiko bat da. Nire bizitzan, euriak beti oso zati garrantzitsuen ikurra izango da, ordea, honen azpian bizitako momentuen oroitzapenengatik. Lucasen eta Danielen istorioaren ikurra da. Egun euritsu batean ikusi nuen lehenengo aldiz. Ur tanten azpian lapurtu artekogure lehenengo muxua. Kaleak aterkiz beteta zeudenean esan genion elkar agur. Agian, egun euritsu batean ezagutuko dira gure istorioa askatasunez bizi ahal izango duten pertsonak.

60 urte geroago

Udazkeneko egun euritsu bat da. Urteroko legez, aitona Lucasek azokara eraman nau nire zazpigarren urtebetetzeko oparia aukeratzera. Oraindik kaleak jendez beteta daude, futboleko mundialean Frantziaren garaipena ospatzen.

Egun honetan ikusi dut lehenengo aldiz. Nire bizitzan hain garrantzitsua izango den mutila. Ile beltz kizkurra du, ur tantek bustitzen dutena. Segundo batzuk igaro ditut soilik hari begira, eta gure begiradak ez dira gurutzatu, baina bere irudia gogoan geratu zait. Jolasean, euriari jaramonik egin gabe, besteak bezala, irribarrez eta pixkanaka gizarteak lortuko duen askatasunaren eredu.